

LABek 2025eko otsailaren 10ean
sinatutako lan hitzarmen berria
eta plantillak esleitzeko
irizpideak adosteko akordioa







SARRERA

Hamasei urte eta hamaika borroka eta gero, 2025eko otsailaren 10ean, Hezkuntza Saila eta Haurreskolak Partzuergoko langileon ordezkari tzaren gehiengoa duen LAB sindikatua adostasunera iritsi ginen. Hala, indarrean zegoen lan hitzarmena gainditu eta hitzarmen berria lortu genuen. Lan hitzarmen berria esku artean izateko eta lan kargak benetan arintzeko plantillak esleitzeko irizpideak (ratioak) negoziatzeko, ezinbestekoak izan dira urteetako lana eta borroka, eta, noski, baita 2025eko urtarrilaren 28an eta 29an egindako greba egunak ere.

Hamasei urte hauek ordea, ez dira alferrikakoak izan; asko borrokatuz, langileen lan baldintzak hobetzeko zenbait akordio partzial eta aldeko sententzia lortu ditugu (ikusi erdialdean).

1. Plantillak esleitzeko irizpideak negoziatzeko aldagaien inguruko akordioa

0-3ko dekretua alboratuz, **plantillak esleitzeko irizpideak adostu bitartean**, gaur egun erabiltzen diren ratioak aplikatuko dira eta 6 orduko arreta zuzena kontutan hartuko da:

> Gela bakarreko zentroak:

- Beti, gutxienez, 1,5 hezitzaile.

Taldekatzean urte bateko haurrak badaude:

- 7-8 hurrekin 1,5 hezitzaile.
- 9 haur edo gehiagorekin 2 hezitzaile.

Taldekatzean 0 eta 1 urteko haurrak badaude:

- 6 hurrekin 1,5 hezitzaile.
- 7 haur edo gehiagorekin 2 hezitzaile.

> Gela anitzeko zentroak:

0 urteko gelan:

- 4 hurrekin hezitzaile 1.
- 5-6 hurrekin 1,5 hezitzaile.
- 7 haur edo gehiagorekin 2 hezitzaile.

1 urteko gelan:

- 6 hurrekin hezitzaile bat.
- 7-8-9 hurrekin 1,5 hezitzaile.
- 10 haur edo gehiagorekin 2 hezitzaile.

Lan hitzarmenean jaso bezala, eta hori sinatzearekin batera, haurreskoletan plantillak esleitzeko irizpideak (ratioak) negoziatzeko egutegia eta berau negoziatzeko aldagaien dokumentua adostu genituen. Plantillak esleitzeko irizpi-

deak (ratioak) **2024-2025 ikasturtea bukatu aurretik negoziatu eta adostuko dira**. Adostutako irizpide horien helburua esleipen-prozesuaren etengabeko jarraipena egitea eta hobetzea izango da, mahai parekidean dauden alderdi guztien parte-hartze aktiboarekin eta lankidetzarekin.

Honako aldagai hauek hartuko dira kontuan negoziazioan:

- **Gela kopurua:** haurreskola bakoitzeko gela kopuru osoa faktore erabakigarria izango da.
- **Haur kopurua:** izena eman duten haurren guztizko kopurua baloratuko da, bakoitzari arreta egokia emango zaiola ziurtatuz.
- **Hezitzaile kopurua:** haurreskola bakoitzeko haur-hezitzaileen kopuru osoa faktore erabakigarria izango da.
- **Taldekatze gelak sortzeko irizpideak zehaztuko dira.**
- **Haurren egonaldi-ordutegia:** haurren ordutegiaren iraupena hartuko da kontuan, uneoro estaldura egokia bermatzeko.
- **Premia bereziak dituzten haur kopurua:**
 - a) Behar fisiko-psikikoei lotutako arreta premia bereziak dituzten haurrak dauden kasuetan.
 - b) Egoera zaurgarrian edota indarkeria matxista gertatzen den testuinguruetan.
- **Koordinatzaileen dedikazio orduak eta liberazio orduak aztertuko dira.**
- **Gutxieneko ordutegia bi hezitzaileekin:** haurreskolaren tipologiaren arabere-

rako ordutegi bat ezarriko da, zeinetan bi hezitzailek parte hartuko duten taldearekin batera. Horrek arreta osoa goa eta eraginkorragoa bermatuko du.

- **Eraikinen ezaugarriak** kontuan edukiko dira.
- **Ordezkapenen estaldura:** ordezkapen guztien estaldura modu egokian eta eraginkorrean bermatuko da, uneoro hezkuntza zerbitzuaren kalitateari eusteko.
- **Hezitzaile gehigarriak emateko aukera kontuan hartuko da, hezitzaileen erreferentzia gal ez dadin** eta etengabeko eta kalitatezko arreta bermatzeko. Prestakuntza eta koordinazio orduak egin ahal izateko giza baliabideak bermatuko dira.

Antolaketa gaien azterketa:

Funtsezko antolaketa gaiak aztertuko dira; hala nola, lan-karga handieneko uneak, baliabideen banaketa egokitzeko eta uneoro kalitatezko arreta bermatzeko.

2. Lan hitzarmena

Jarraian, Haurreskolak Partzuergoko langileen lan hitzarmen berriaren gakoak zehazten dira.

2.1. Lan hitzarmenaren indarraldia

- Lan hitzarmenaren indarraldia 2026ko abenduaren 31ra artekoa da. Ultraaktibitatea jasotzen da; beraz, lan hitzarmenak indarrean jarraituko du berri bat hitzartu arte.
- V. titulu osoa (lizentziak, baimenak eta

eszedentziak) indarrean dago.

- 20.2, 21.1 eta 22.2 artikulua 2025eko irailaren 1ean indarrean jarriko dira. Hezkuntza alorreko pertsonalaren urteko lanaldia, eguneko lanaldia eta egutegia, hain zuzen ere.
- Beste guztia EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2.2. Lanaldia

Kudeaketako langileak:

- 1592 ordu urtean eta norberaren zereginetarako urteko 47 ordutako baimena.
- 50 orduko formazio eskubidea, ikasturte ezberdinetan zehar metatzeko aukerarekin.

Hezitzaileak

- 200 lan egun: 196 hurrekin 4 haurrik gabe.
- 1470 ordu urtean.
- **100 orduko jaitsieraz gain, 6 jai eguneko baimena dago jasota egutegian.** Ikasturte bukaeran hurrengo ikasturteko egutegia aztertuko da mahai parekidean. Jai kopuruen erdia zuzendaritza batzordeak zehaztuko du, eta beste erdia haur eskola bakoitzeko jarraipen batzordeak.

1212 ordu haurrei arreta zuzena emateko.

178 ordu prestakuntzarako
80 ordu formazioarako.

- 6 jai egunak kontuan hartuta, 1429,5 ordu urtean (ikasturteko haurrik gabeko egunak partzialak izan daitezke-larik).

LAB-EN LORPENAK AZKEN URTEETAN

Borrokak merezi duelako, lanean jarraituko du

2009

Lan Hitzarmena

2009an ordezkaritza zuten sindikatu guztiek Lan Hitzarmena sinatu.

2014

Ultraaktibitatea

Lan hitzarmenaren ultra aktibitatea sinatu genuen, Lan Hitzarmen berri bat sinatu arte aurrekoa indarrean mantentzea lortu.

2015

Kudeaketan akordio

Kudeaketa alorreko langileei urteko lanaldia, egutegia eta oporrak arautzen dituen akordioa sinatu.

2022-2023

Hezkuntza legea eta akordio laborala

Hezkuntza lege proiektuaren testuinguruan mobilizatu. Hezkuntza lege berria langileekin eraiki behar zela nahi eta nahi ez aldarrikatu. Horrela, 2023ko ekainean LABek eta Hezkuntza Sailak akordio laborala sinatu.

2022

Kudeaketan lanpostu zerrenda sortu

Kudeaketa alorreko lanpostu zerrenda sortu, **LABek aldebakarrez sinatutako 2018ko akordioan jasotakoa ez betetzeagatik sententzia irabazi.**

2023

Doakotasuna eta 60 urtekoen murrizketa

Doakotasuna indarrean jartzea lortu, urteetako borrokari esker, eragile eta familiekin elkarlanean. **60 urtetik gorakoen arreta zuzeneko murrizketa ez ordezkatzeagatik demanda irabazi.**

2023

LEP

Lanpostuak kontsolidatzeko LEP prozesuak burutu, aurretik finkoen lekualdatzea egitea lortu, honela, hezitzaile finkoei hutsik zeuden lanpostu guztiak eskainiz. **LEPa gainditu eta 3 urte baino gehiagoko LEPak finkatzea lortu sententzia bidez.**


2024

2 akordio

Lan Hitzarmenaren negoziaketa 2024ko apirilaren 17an bukatu. **12. artikulua:** lan metaketa lanpostu estrukturalen alorreko prozedura (irailetik aurrera) txertatuko diren artikuluen **-52. artikulua:** 63 urteko langileei jarduna heren bidera (neurria).

LAB¹

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA



- Formazioa:

50 kreditatu.

30 erregistro pertsonala.

- Lan jardunarekin proportzionalak izango dira formazio-orduak, bai ziurtagiri ofizialeko formakuntza orduak bai eta erregistro pertsonaleko orduak ere, jakinik 50 ordu kreditatzen ez badira ezin izango dela eskuratu formakuntzaren ziurtagiri ofizialik. Hala ere, lanaldi murriztuan diharduten langileek aukera izango dute formazioa bere osotasunean egiteko, espresuki hala eskatuz gero.
- Hezitzaileen eguneko lanaldia 6 ordu arreta zuzena eta 45 minutu pres-takuntza. 4 egun arreta ez zunenekoa (haurrik gabe).

2.3. Koordinatzaileen eguneko de-dikazioa

8 edo gehiago - Lanaldi osoa 8. gela erdi beteta dagoenean aplikatuko da, beteta egon arte itxaron gabe. Gainontzeko gelak beteta egon beharko dira.

6 edo 7 - Lanaldi erdia 6. gela erdi bete-ta dagoenean aplikatuko da, beteta egon arte itxaron gabe. Gainontzeko gelak be-teta egon beharko dira.

4 edo 5 - Lanaldi herena.

2 edo 3 - 90'.

1 - 60.

Gelak erdi beteta daudela ulertuko da 0-1 urteko gelan 4 haur, 1-2ko gelan 6 haur eta taldekatze geletan 5 haur baldin ba-daude.

- Nahiz eta jardun partzialean egon, de-

dikazio denbora osoa egiten bada koor-dinazio plusa osorik ordainduko da.

2.4. Lanpostuak sortu eta egonkortu

- Bi urtarriletan errepikatzen diren produkzio arrazoiengatik kontratuak lanpostuen zerrendan txertatuko eta hornituko dira. 2024ko eta 2025eko ur-tarriletan errepikatu diren produkzioa-gatik kontratuen ondorioz, 2025eko irailen 63 hezitzaile lanpostu berri sortu eta hornituko dira hurrengo hau-rreskoletan:

Alegría-Dulantziko Haurreskola-Eguzkilore

Gasteizko Haurreskola-Aranbizkarra

Gasteizko Haurreskola-El Pilar

Gasteizko Haurreskola-Gloria Fuertes

Gasteizko Haurreskola-Landaberde

Gasteizko Haurreskola-Ortzadar

Gasteizko Haurreskola-Salburua

Abadiñoko Haurreskola-Zelaieta

Abantoko Haurreskola

Arrigorriagako Haurreskola

Barakaldoko Haurreskola-Gurutseta

Bermeoko Haurreskola

Bilboko Haurreskola-Arangoiti

Bilboko Haurreskola-Miribilla

Durangoko Haurreskola-Julene Azpeitia

Erandioko Haurreskola-Astrabudua

Ermuko Haurreskola

Etxebarriko Haurreskola-Bekosolo

Etxebarriko Haurreskola-Zintururi

Galdakaoko Haurreskola-Bizkai

Güeñesko Haurreskola-Eretza

Igorreko Haurreskola-Inazio Zubizarreta
 Lekeitioko Haurreskola
 Lemoako Haurreskola
 Lezamako Haurreskola-Katuka
 Markinako Haurreskola-Beko-Txiki
 Mungiako Haurreskola-Uriquen
 Ondarroako Haurreskola
 Ortuellako Haurreskola-Otxartaga
 Santurtziko Haurreskola-Mirabueno
 Sopelako Haurreskola
 Ugao-Miraballesko Haurreskola
 Anoetako Haurreskola
 Arrasateko Haurreskola-Bedoñabe
 Arrasateko Haurreskola-Musakola
 Azkoitiko Haurreskola-Xabier Munibe
 Azpeitiko Haurreskola-Uztaro
 Beasaingo Haurreskola-Seaska
 Bergarako Haurreskola
 Donostiako Haurreskola-Altza
 Elgoibarko Haurreskola
 Hernaniko Haurreskola
 Hondarribiko Haurreskola-Loraitz
 Oñatiko Haurreskola-Txiki Txoko
 Pasaiako Haurreskola-Karmengo Ama
 Soraluzeko Haurreskola
 Tolosako Haurreskola
 Urretxu-Zumarragako Haurreskola
 Zaldibiako Haurreskola
 Zarauzko Haurreskola
 Zestoako Haurreskola-Aroa Behea
 Zumaiaiko Haurreskola-Arrangoleta

- Behin-behinekotasuna %5etik behera kokatuko da, eta hiru urtean behin LEP prozesuak egingo dira.
- Pertsonal finkoa hautatzeko prozesuetan lanaldi osoko lanpostuak eskainiko dira.
- LEP prozesuetan eskainiko den lanpostu kopurua eta LEP eredia alde sozialarekin negoziatuko dira.
- Hezitzaile finkoen lekualdatzea urtero egingo da.
- Zehaztutako baldintzen arabera, finkoen lanpostuen trukatzek egin ahalko dira.
- 13.artikulua.
 - > Finkoen artean norbait mugitu behar bada, jatorrizko haurreskola eta Haurreskolak Partzuergoko antzinatasunaren batura izango da kontuan.
 - > Ordezkoek ere euren jatorrizko haurreskolara itzultzeko aukera izango dute.

2.5. Gizarte onurak

60 urtetik gorako langileak:

1. 60 urtetik gorako langileei zuzeneko arretarako denbora murriztea. 60 urtetik gorako hezitzaileek haurrei zuzeneko arreta emateko denbora murriz dezakete, egunean bi orduz. Denbora hori prestakuntza lanetarako eta zentroaren antolaketa orokorreko lanetarako erabiliko da. **Denbora hori, prestakuntzarako 45 minutuak gehituta, hereneko ordezkapenarekin beteko da.**
2. 63 urtetik gorako hezitzaileek, aurreko idatz-zatian adierazitako murrizketaren ordeztu, **ez-ohiko lanaldi murrizketa**

eskatzeko aukera izango dute, baldin eta errelebo-kontratua hitzartzeko baldintzak betetzen ez badituzte. Murrizketa hori euren lanaldi osoaren herena izango da, eta **ez du eraginik izango ordainsariatetan**.

Ez-ohiko **murrizketa hori metatu ahal izango da**, eta osorik gozatu dagozkion egunak ikasturte bakoitzaren amaieran.

2.6. Baimen eta lizentzia berriak

- Bigarren maila baino urrunagoko senideen kasuan, nahiz eta elkarrekin ez bizi langilea haien tutore legala bada, hainbat baimen onartuko zaizkio.
- Gurasotasun baimenaren aste guztiak jarraian hartuz gero, bi baimen aste gehiago.
- Senideen gaixotasun larriagatik lanaldia 1/3 batera edo 1/2ra murrizteko aukera hilabetez, ordaindua.
- Lehen mailako senideei mediku konsultetara laguntzeko ikasturtean 20 ordu ordaindua.
- Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik 2 eguneko baimena, erroldatu eta 15 egunetako epean erabiltzeko.
- EAEko administrazioan sartzeko LEP prozesuetan parte hartzeko baimen ordaindua.
- Odola edo odol osagaiak emateko baimen ordaindua.
- Norberaren eginkizunetarako baimena (soldatarik gabekoa). Egun bakarra hartzeko aukera dago. Behin-behineko langileen kasuan, ikasturteko antzina-

tasun metatua 6 hilabetetik 4 hilabetera jaisten da; eskaera egiteko epea 15 egunetik 10 egunera murrizten da (salbuespen kasuetan gutxiago).

- Ikasketak edo praktikak egiteko baimena.
- Goi mailako kirolarientzako baimena.
- Eszedentzia berezia (lanpostu erreserbarekin gutxienez 6 hilabetez eta gehienez urtebetez).

2.7. Hobekuntza ekonomikoak

Kudeaketako langileak:

- Kudeaketa alorreko langileen ordain-sariak administrazio orokorreko kategoria berdinekoekin ekiparatuko dira 2026ko urtarriletik aurrera.

Hezitzaileak

- Arropa osagarria: 120.
- Koordinazio osagarria osorik, nahiz eta murriztuan egon.

Guztientzat

- Aurrerakinak.
- Nomina aurrerapenak (langile finkoentzat).
- Gizarte funtsak 20000.
- Formazio funtsak 4500.
- Bizi, istripu eta erantzukizun zibileko aseguruak 33000.

2.8. Lan osasuna eta segurtasuna

- Sei urtetik behin arrisku psikosozialen eta ergonomikoen azterketa egiteko konpromisoa hartzen du partzuergoak. Lehenengoa 2025/2026 ikasturtean egingo da.

- Bestetik, langileen artean ere erasoak izan daitezke eta horiei aurre egiteko protokoloa berrituko da 2025-2026 ikasturtean. Batzorde parekideak zehaztuko du zer irizpide erabiliko diren sexu jazarpen egoeren aurrean jarraitu beharreko prozedura/protokoloa finkatzeko eta horren berri emateko.

2.9. Formazioa

Hezitzaileak

- Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileek, haur hezkuntzako lehen ziklorako egokiak diren Prest Gara programan antolatutako ikastaroetan irakasleen baldintza berdinetan parte hartzeko aukera izango dute.

Kudeaketa langileak

- Kudeaketa alorreko pertsonalak eskubidea izango du bere lan ordutegiaren barruan bere lanpostuari egokitu-tako 50 orduko formaziorako, hainbat ikasturtetan metatzeko aukera izango duena.

Guztiak

- Euskalduntzea: langileak euskalduntzeko plana egingo da eta euskalduntzean hobetzeko beste erakunde batzuk eskaintako ikastaroetan parte hartzeko aukera eskaini ahal izango zaie Haurreskolak Partzuergoko langileei, helburua izanik 25/26 ikasturtean parte hartu ahal izatea.

2.10. Berme gehiago

- Partzialki ordaindutako baimena (urte sabatikoa).
- Lizentziei, baimenei eta eszedentziei eta ordainsariei dagokienez, EAEko Ad-

ministrazioko Negoziazio Mahai Orokorren hitzarmenetan inolako hobekuntzarik egingo balitz titulu honetan adierazitako baldintzekiko, hobekuntza hori partzuergoan zuzenean aplikatuko litzateke.

- Hitzarmen honetan jasotzen diren aurrerakinei, nomina aurrerapenei, bizi-aseguruari, istripuari, erantzukizun zibilari, joan etorrien balioei eta lizentzia eta baimenei buruzko klausulak hobetu egingo dira Hezkuntza Saileko lan legepeko hezitzaileen lan hitzarmenean ezartzen diren baldintzen arabera.
- Kudeaketa alorreko langileen barne sustapena, ordezkoen araudia eta ordezkapenak egiteko kasuistikak negoziatzeko egutegia zehaztuko da lan hitzarmenaren sinadurarekin batera, 2024-2025 ikasturteko hirugarren hiruhilabetea.
- Genero berdintasunaren aldeko neurriak.
- LGTBI pertsonen berdintasuna bermatzea.
- Sexu-joera, genero-identitatea eta genero-adierazpenaren arabarako jazarpenaren aurkako protokoloa.
- Ordezkoen araudi berria eta hezitzaileen ordezkapenentarako aplikazio telematikoa 2025eko irailaren 1ean indarrean sartuko da.
- Horrez gain, Haurreskolak Partzuergoak aldebakarrez erabakita langileentzako Itzarri ekarpena ezarriko du 2025eko irailaren 1etik aurrera, 2025eko urtarri-laren 1eko atzeraeraginez.



Lanean jarraituko dugu, eskaintzen dugun hezkuntza zerbitzua hobetzeko eta langileon lan baldintzak hobetu eta funtzio publikoak ezartzen dizkigun mugak gaitzetzeko.

Era berean, hezkuntza sistemaren ardatza den eskola publikoaren alde lanean jarraituko dugu. Haurreskolak partzuergo publikoa ardatz, 0-3aren udal eskaintza bateratua lortzeko apustua egiten dugu. Sare publiko bakar deszentralizatuaren alde borrokan, euskal eskola publiko komunitarioa iruten!

Borrokak merezi du!

LAB¹
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA